Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

930

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 4koa, Herrizaingo Saileko Zerbitzu zuzendariarena, 57/08 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea (prozedura laburtua) Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegira bidaltzea xedatzen duena, eta balizko interesdunei aipaturiko epaitegi horretan agertzeko dei egiten diena.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiak prozedura laburtuko 57/08 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du. Aipatu auzi-errekurtsoa Ertzaintzako funtzionarioek 2007ko urtarrilaren 29an jarri dute Giza Baliabideen zuzendariak 2006ko abenduaren 29an emandako ebazpenaren aurka, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordeari jarritako gora jotzeko errekurtsoa isilbidez ustez gaitzesteagatik.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, eta Herrizaingo Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuaren 7. artikuluan Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari izendatzen zaizkion eskumenen arabera,

EBATZI DUT:

1.– Eskaturiko administrazio-espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegira bidaltzea.

2.– Aipaturiko espedientean interesen bat izan dezaketenei dei egitea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta bederatzi eguneko epean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegian ager daitezen euren bidezko interesen alde egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 4a.

(Araubide Juridikoko zuzendariaren ordez. 2008ko martxoaren 11ko Agindua).

Zerbitzu zuzendaria,
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

930

RESOLUCIÓN de 4 de febrero de 2009, del Director de Servicios del Departamento de Interior, por la que se dispone remitir al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz el expediente relativo al recurso contencioso-administrativo, procedimiento abreviado n.º 57/08 y se emplaza a los posibles interesados para que puedan comparecer ante dicho Juzgado.

Por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz ha sido requerida la remisión del expediente administrativo relativo al recurso contencioso-administrativo, procedimiento abreviado n.º 57/08, interpuesto por funcionarios de la Ertzaintza, contra la desestimación presunta por silencio administrativo del recurso de alzada interpuesto por el demandante con fecha 29 de enero de 2007, ante el Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, frente a la resolución del Director de Recursos Humanos de 29 de diciembre de 2006.

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 49 de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, y en virtud de las competencias atribuidas a esta Dirección por el artículo 7 del Decreto 364/2005 de 8 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Interior,

RESUELVO:

1.– Remitir el expediente administrativo solicitado al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz.

2.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que en el plazo de 9 días, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz en defensa de sus legítimos intereses.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2009.

(Por suplencia de la Directora de Régimen Jurídico. Orden 11 de marzo de 2008).

El Director de Servicios,
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.